

MOZIOA, UDAL FINANTZIAZIORAKO FORU FUNTSA MURRIZTEARI BURUZ

Astigarragako EH Bilduko udaltaldeak ondoko mozioa aurkezten du Udal Finantziatorako Foru Funtsaren murrizketa dela eta.

Astigarraga, 2020ko maiatzaren 21a

Xabier Urdangarin Lasa
Astigarragako EH Bilduko udaltaldea

MOZIOA, UDAL FINANTZIAZIORAKO FORU FUNTSA MURRIZTEARI BURUZ

Maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Aldundiak udalei egiten dien diru-banaketan % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldebakarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko toki beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunean bildu zen eta batzar hori dagoneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko baizik ez zen izan.

Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu horretan, euskal erakundeen arteko diru-banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren, eta inola ere ez aldebakarrez.

Zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez. Horregatik, honako eskariak egiten dizkio Astigarragako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari:

1. UFFFri buruzko elkarrizketaren aldeko apustu irmoa egitea.
2. Berraztertzea aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasun bat bilatu dezala udalen egonkortasun finantzarioa ere helburu izango duena.
3. Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez, Udalekin kobernantzarako foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua. Bertan informazioa partekatu dadila, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezen, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.

Astigarrako Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Nagusiari, Ogasun Diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDELeko Gipuzkoako eta EAEko zuzendaritzei.

MOCIÓN RELATIVA A LA DISMINUCIÓN DEL FONDO FORAL DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL

El pasado 14 de mayo se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el acuerdo unilateral adoptado por el Consejo de Diputad@s por el que se aplicaba una reducción del 20% en el reparto de fondos que realiza la Diputación a los ayuntamientos. El próximo día se reunió el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa, espacio que debería de servir para hablar de este tipo de decisiones, y fue para dar a conocer la decisión ya adoptada.

Los ayuntamientos, además de ser las entidades más cercanas a las necesidades de la ciudadanía, son entidades de primer orden, como reconoce la Ley Municipal. En este sentido, cualquier cambio en la distribución financiera entre las instituciones vascas debería ser debatido y consensuado entre todas ellas, una vez que las partes hayan compartido la información de forma transparente. En ningún caso debe producirse de manera unilateral.

Hablamos de la financiación imprescindible para el desarrollo de los servicios públicos, de las decisiones políticas que afectan directamente a la gestión diaria de los ayuntamientos y a la vida de la ciudadanía. Por ello, el Ayuntamiento de Astigarraga realiza las siguientes peticiones a la Diputación Foral de Gipuzkoa:

1. Que apueste decididamente por el diálogo sobre el FFM.
2. Que reconsidere la decisión unilateral adoptada y que busque en colaboración con los ayuntamientos un acuerdo que persiga también la estabilidad financiera de los ayuntamientos.
3. En la medida que creemos que la colaboración es más necesaria que nunca, que el Consejo de Finanzas de Gipuzkoa se convierta en un foro de cogobernanza junto con los ayuntamientos. Que se comparta información en él, se analicen las propuestas y se alcancen consensos que luego tengan el reflejo necesario en la Norma Foral de financiación municipal de Gipuzkoa.

El Ayuntamiento de Astigarraga comunicará este acuerdo al Diputado General de Gipuzkoa, al Diputado de Hacienda, a todas las formaciones políticas de las Juntas Generales de Gipuzkoa y a las direcciones de Gipuzkoa y de la CAPV de EUEDEL.